

**UNIBERTSITATEA.** Gobernuak sozialisten laguntza behar du proiektua aurrera ateratzeko, gehiengo osoa alegia

# NUPen euskara arautzeko UPNren legea atzera botako du gaur Parlamentuak

PSNk, EA-EAJk eta CDNk beste testu bana aurkeztu dute, eta Batasunak, Batzarrek eta IUk kontra bozkatuko dute

Alberto Barandiaran | IRUÑA

Nafarroako Parlamentuak UPNko gobernuari itzuliko dio, gaur, unibertsitateko ikasketetan euskara arautzeko lege proiektua, talde guztiek osoko zuzenketak edo erabateko arbuioa agertu baitute proposamenaren inguruan.

Miguel Sanzen gobernuak maiatzean aurkeztutako testuak unibertsitateko eskolak «soil-soilik gaztelaniaz edo espainolez» emango zirela azpimarratzen du lehen artikuluan, eta edozein ikasketa elebidun jartzeko, Nafarroako Gobernuaren «baimena» jarzen du baldintza gisa.

UPNk PSNren laguntza beharko luke proiektua aurrera ateratzeko, gehiengo osoak behar baitute lege proiektuek, eta sozialistek iragarri dute beren proposamena onartzen ez bada kontra bozkatuko dute.

## NUPek uko egin dio bere plangintza egiteari

Gobernuaren proposamena iragarrita zegoen, iaztik, NUPeko gobernu taldeak bere hizkuntz

## «ESPAINOL HUTSEZ»

UPNk ikasketa ofizialak «espainol edo gaztelania hutsez» nahi ditu


## GEHIENGOA

Gehiengo osoa behar du Gobernuak, eta hori, soilik, PSNren babesarekin lortuko luke

plangintza egiteari uko egin zionetik.

Euskararen Legea zehaztugabea da unibertsitate ikasketen atalean, eta Jose Antonio Perez Prados egungo errektoreak behin baino gehiagotan aipatu du berezko legearen beharra.

Gainera, Unibertsitate Lege berria dela eta, estatutuak berregituratzen ari dira unibertsitate guztietan, eta NUPen euskararen ingurukoak beharbada aldatuko dituztela ohartarazi dute euskaltzaleek.



MIKEL UHARTE

Euskararen alde NUPen egindako ekitaldi bat.

UPNren lege proposamenak denetarik kritikak jaso ditu —«eskandaluzkoa» (EA), «atzerakoia» (IU-EB), «errespetu gutxikoa» (PSN)—, eta hiru taldek —PSN, EA-EAJ eta CDNk,

hain zuzen ere— testu bana aurkeztu dute.

Gaurko bileran proposamenak eztabaidatu eta bozkatuko dira. Bakoitzak bere testuaren alde bozkatuko duenez, Gober-

nuak bere testua erretiratu eta beste bat hitzartu beharko luke. Horretarako, sozialisten laguntza behar du, eta haiek Euskararen Legearen errespetua aldarrikatzen dute.

## ALTERNATIBAK

### PSN

## Euskararen Legeari errespetua

Sozialistek aurkezturiko testuan Euskararen Legea eta NUPeko estatutuak dira erreferentzia argia, eta horien menpe jartzen du taldeak egingo diren araudi guztiak. Titulu ofizialetan euskara sartuz gero Foru Legea beharko dela dio testuak, eta euskarazko irakaskuntza baimentzen du euskararen inguruko ikasketetan, Irakasle Eskolan eta hautazko irakasgai libreetan.

### BATASUNA

## «Desadostasun oinarritzkoa»

Igor Arroyo parlamentariak sinatutako idazkiak kritikatzeko du UPNk aurkeztutako testua, eta araudi faltarena «aitzakia» besterik ez dela dio. «Arazoa ez da araudirik ez dagoela, arazoa da araudia egon badagoela, Euskararen Legean eta NUPeko estatutuetan dagoela, baina hori ez dela Gobernuaren gustukoa, eta atzerago joan nahi duela». Arroyok nabarmendu du hizkuntza politikaren baitakoa dela proposamena eta «oinarritzko desadostasuna» erakusten duela aurkeztutako testuarekiko.

### EA-EAJ

## Elebitasun progresiboa

Begoña Erraztik atzo aurkeztutako testuan, unibertsitatean euskaraz ikasteko eskubidea azpimarratzen da, eta NUPek «elebitasun progresiborantz» jo behar duela. Horretarako, NUPek titulu ofizial guztiak bi hizkuntzetan emango lituzke —euskaraz eta gaztelaniaz—, eta berezko egitasmoak martxan jarriko lituzke euskararen normalizaziorako. Halaber, gaztelaniazko ikasketetan hautazko irakasgaiak euskaraz eskainiko litateke.

### IU-EB

## «Errealitatetik kanpo»

IUko taldeak ere testua itzultzeko eskatuko dio gaur gobernuari, «gatazkarako beste aitzakia bat» delakoa. Talde horren ustetan, proposamena errealitatetik kanpo dago, ez da objektiboa eta atzerakoia eta berdintzailea da. Politika honek, IUrentzat, hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko «oztopo larria» da, eta desegokitzat jotzen du guztiz. «UPNk aurrerago egin nahi du hizkuntzaren homogeneizazio lan honetan». Taldeak ez du beste testu alternatiborik aurkeztu.

### CDN

## Unibertsitatearen autonomia

Juan Cruz Alliren taldeak aurkeztutako testuan, NUPen autonomia aldarrikatzen da hasieratik, eta, gainera, oso esaldi garrantzitsua dakarrela zioen azalpean. Bertan esaten da autonomiak exijitzen duela askatasuna, eta Parlamentuak ezin duela ezarri araudi zehatz eta sakonik. Hala, euskararen presentzia eta izaera estatutuetan arautuko dela dio CDNren testuak, baina Irakasle Eskolan bakarrik uzten du euskarazko lerro elebakarra.

### BATZARRE

## Adostasuna testu berrirako

Milagros Rubio talde mistoko parlamentariak ere testua itzultzeko eskatu du, baina beste testu bat aurkeztu gabe. Horren ordeztan, *adostasun* hitza aipatzen du bere idazkian, testu hitzartua lortu ahal izateko. Testu hitzartu horren oinarria litzateke euskaraz ikasi ahal izatea ikasgai guztietan, eskaera nahikoa bada, eta berezko tituluak garatu ahal izatea. Halaber, langileak kontratatzeke euskaldunen kopuruak zehaztu beharko litateke, eta Euskal Filologian titulazio berria martxan jarri beharko litzateke.